

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Entzumena

2E1

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Ahozko azterketak bi zati izango ditu

- Entzumena
- Mintzamena

Entzumenaren ondoren, mintzameneko azterketa izango duzu.

Entzumena amaitu ondoren **10 minutu** izango dituzu mintzameneko proba prestatzeko

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposaturiko denbora
Ahozko azterketa	Entzumena	10	20 puntu	25 min inguru
	Mintzamena	15	30 puntu	15 min inguru
	Guztira	25	50 puntu	

Azterketa deialdia: **2010eko ekaina**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENTZUMENA

1. TESTUA

Euskadi Irratiko Landaberri saioko zati bat entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena. 1 minutu eta 45 segundo dituzu galderak irakurtzeko.

Adibidea:

- a. *Zein da Landaberri saioaren xedea?*
 - a. *Aditu baten azalpen teorikoak entzutea.*
 - b. *Jakobarekin galderak trukitzea.*
 - c. *Hamasei minutuko elkarrizketa eskaintzea.*

- b. *Zer egin behar da programan parte hartzeko?*
 - a. *943 01 22 50 telefonoan mezua utzi.*
 - b. *943 01 22 50 zuzeneko telefonora deitu.*
 - c. *Zuzenean erantzuteko bi telefonoetara deitu.*

- c. *Zein da Mikel oñatiarrak egindako galdera?*
 - a. *Gurbitza landatu nahi du lorategian, eta horretarako zer egin behar duen galdetzen du.*
 - b. *Gurbitzaren fruituak nola lor daitezkeen jakin nahi du.*
 - c. *Bere kezka da nola zaindu behar diren gurbitzaren loreak.*

- d. *Zein da Mikelen galderaren erantzuna?*
 - a. *Landare-zale gaztea izanik, ez du eskarmentu handirik lan horretan.*
 - b. *Denbora gehiago behar du gurbitzak fruitua emateko.*
 - c. *Ondoan duen landareak ez dio polinizazioa ahalbidetzen.*

- e. *Nolakoak dira gurbitzak?*
 - a. *Landare bakoitza arra eta emea da.*
 - b. *Batzuk arrak dira besteak emeak.*
 - c. *Hasieran arrak dira eta txertatu ondoren emeak.*

- f. *Zer aholkatzen dio Jakobak?*
 - a. *Fruitu gehiago jaso nahi baditu beste landare baten odola aldatu behar diola.*
 - b. *Ondoan beste landararik ez jartzeko, kalte egingo baitio hazteko orduan.*
 - c. *Polinizatzeko beste landare baten beharrik ez badu ere, ondo etorriko zaiola beste bat jartzea.*

- g. *Zer lur edo ongarri komeni zaio gurbitzari?*
 - a. *Zaila da lur kaskarretan ondo haztea.*
 - b. *Ongarririk gabe ere ondo hazten da.*
 - c. *Buztinaz egindako ongarria da egokiena.*

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0. - b	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
---------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

2. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko saio batean, **Gurasoei eta araei** buruz hitz egingo dute. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena. 2 minutu eta 15 segundo dituzu galderak irakurtzeko.

Adibidea:

0. Zeri buruz hitz egingo dute gaur?
- Gidatzeko araei buruz.
 - Arauei buruz.
 - Ikasteko araei buruz.
1. Noiz jarri behar dituzte arauak gurasoek?
- Haurrak direnetik nerabeak diren arte.
 - Nerabezaroan, batez ere.
 - Nerabeak direnean ez dago arauen beharrik, betetzea asko kostatzen zaie-eta.
2. Zergatik dira beharrezkoak arauak haurrentzat?
- Etxean nola jokatu behar duten erakutsiko dietelako.
 - Haurrek zein jokaera jarraitu behar duten erakutsiko dietelako.
 - Beste haurrekin nola lan egin dezaketen erakutsiko dietelako.
3. Haurrei zertan lagunduko diete arauak?
- Desio duten hori beste era batera lor dezaketela ikasten.
 - Helduen mundua hobeto ezagutzen.
 - Beraien mundua antolatzen ikasten.
4. Zein da garairik onena haurrentzat arauak jartzen asteko orduan?
- Gurasoek egoki ikusten dutenean, beraiek ezagutzen baitute haurra egokien.
 - Adinak garrantzia du eta txikiak direnean ez dizkiegu jarriko.
 - Txikitatik ohitura jakin batzuk eduki behar ditu eta gero adinaren arabera aginduko zaizkio.
5. Nola jarri behar zaio araua?
- Gurasoek adostuta jarri behar zaio.
 - Bietako batek arauaren berri emanez gero, nahikoa da.
 - Arazoa azaltzen denean jarri behar da araua, ez lehenago.
6. Araua jartzeko orduan nola jokatu behar dute aita-amek?
- Errespetu osoz eman behar zaizkio arauak haurrari.
 - Errespetuaren inguruko arauak eman behar zaizkio.
 - Seme-alabak ez gehiegi mintzen saiatu behar dute.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- B	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
--------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

3. TESTUA

Orain, Euskadi Irratian entzule batek kontatutako **hegazkineko pasadizo bat** entzungo duzu.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena. 2 minutu eta 15 segundo dituzu galderak irakurtzeko.

Adibidea:

0. Zeri buruzko hitz egingo dute irratsaioan?

- a. Hegazkinetan gertatutakoei buruz.
- b. Hegazkin istripuei buruz.
- c. Hegazkinei buruz.

1. Alberto Martinek bidalitako audioan non gertatu da lehen ezbeharra?

- a. Aireportuan zain zegoela.
- b. Hegazkin batean.
- c. Aireporturako bidean.

2. Zer hegaldi egin nahi zuen Albertok?

- a. Kopenhage - Madril - Loiu.
- b. Kopenhage - Foronda - Loiu.
- c. Kopenhage - Foronda.

3. Zer gertatu zela esan zieten tripulaziokoek hegaldian zihoazen bitartean?

- a. Langileetako bati lan-kontratua amaitu zitzaiola.
- b. Langileen greba egitea erabaki zutela.
- c. Langileen lanaldia amaitu zela.

4. Zer egingo zutela esan zuten tripulaziokoek ?

- a. Bartzelonan egingo zutela geldialdia eta han egingo zela langileen aldaketa.
- b. Bartzelonan atsedean hartu ondoren jarraituko zutela Madril aldera.
- c. Bartzelonako aireportuan beste hegazkin bat hartu behar zutela.

5. Zer da bertan gertatu zena?

- a. Hegazkinak matxura bat zuela.
- b. Norbaitek ezkutuan armak sartu zituela.
- c. Langileak greba egiten ari zirela.

6. Zer gertatu zitzaion Madrilen?

- a. Forondan lurreratuko zirela esan zieten.
- b. Hegazkina berehala aterako zela esan zieten behin eta berriz, baina ez zen ateratzen.
- c. Hegazkina berandu aterako zela esan zieten.

7. Zer gertatu zen ondoren?

- a. Tripulazioak Madrilera eramango zituztela mehatxu egin bazuen ere, azkenean bidaiariak lasaitu egin ziren.
- b. Madrilera bueltatu ziren eta bidaiariak lasaitu zirenean abiatu ziren Forondara.
- c. Madrilera bueltatu eta bidaiariak txintxo-txintxo atera ziren hegazkinetik.

8. Bidaiaren bukaeran zer nahi zuten bidaiariak?

- a. Ez zuten Loiura joan nahi.
- b. Autobusa Loiura iritsi baino lehen Bilbora joatea nahi zuten.
- c. Loiura joan ondoren beraiek Bilbon uztea nahi zuten bidaiariak.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- A	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-	8.-
--------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------